

EXISTENTZIALISMOAREN KONTRA

Ezagutu ezagutzearren, plazer berezi bat ematen duelako, plazerrik handiena delako. Biblian ezagutzea maitatzearen sinonimoa ere bada. Paganoen artean, neopaganismoan ere, ezagutu nahi da boterea hartzeko besteen gainetik, eta hola elkarren kontrako halako etsaitasun bat sortzen da, gerretan duena bere adierazpiderik gaiztoena. Baina primarioki ezagutu nahi da plazer handiena horrek ematen duelako. Beraz, Biblian ulertzen den moduan ulertzen dut nik ere. Eta ez dut ukatuko tentazioan erortzeko ni ere expuesto nagoela, bistan dago.

Baina nola hasi daiteke ezagutzen? Esaten cosmos hau indefinidua dela? Ala bilatuz, kontrara, cosmos honen definizioa, eta definiziorik zehatzena, osoena, definizio unibertsala da. Baina hasteko derrigorrean hasi behar gara objektu diferenteen definizioekin. Eta objektu baten definizioa definizio hori unibertsala bada orduan da objektu horren esentzia ezagutzea, bere forma inolako pribaziorik gabe ezagutzea. Hori ideala da, eta cosmos honetan guk ez dugu halako ezagutzarik lortzen inoiz. Ezinezkoa da. Cosmos hau igarotzea izateak hori erakusten du. Eta orduan gure desolazioa darabiltzagun ikerketetan eta estudioetan handia da. Pribazio batekin topo egin dugulako, gure esentzia mundanalean dagoena.

Baina materialismoan erortzen bagara ere, jada hor ez dugu ilusio berezirik jartzen. Pribazio batek ekartzen gaitu materialismora azken batean. Eta materialismoan pribazioak bizi ditu-

gulako, ezin iritsiz cosmos honen definizio unibertsalera. Hori baita helburu gorena. Hasten gara kasu partikularretatik, objektu diferenteen definizioak bilatuz eta hola, baina helburu maximoa, dena abarkatzen duelako, cosmos honen definizio unibertsala da. Eta gure materialismoa eszeptizismoa da.

Eta orduan gure materialismoa existentzialismoa ere, gaur egun, bada. Ez dugu bakarrik afirmatzen cosmos hau existentzia soila dela, antiesentzialistak ere bagara. Baina hor dagoeneko bagara erori errore batean. Ezagutza hasten baldin bada objektu diferenteen definizioekin, eta definizioak esentziaren berri ematen badu, nola izango gara antiesentzialistak? Ez da hobe esatea gure helburu gorena lortu ezina dela? Baina horregatik gure existentzialismo modernoa ez da zertan eszeptikoa izan behar. Zeren eszeptizismoan zientziaren posibilitatea ere ukatu egiten baita. Eta hori, nik dakidala, existentzialismo modernoak, ezagutzen ditudan adartzeetan, ez du egiten. Beraz, estudiatzen dugun cosmos honetako esentziak (definizioak) ez ditugu osorik perfektuki ezagutzen baina hur ematen badiogu gure estudioari eta zientzia badugu egiten, eta zientzia egiten dugula denon begien bistan dagoen aktibitate humanoa da. Eta badu horrek esplikazioa. Zientzia perfektuak operatzen du definizio unibertsalekin, garbi dago, baina unibertsal izan barik definizio hipotetikoekin ere bada posible zientzia egitea, eta hola da gainera, zeren definizio bat, edozein, unibertsal ezin izan badaiteke orduan hipotetikoa izan behar da derrigorrean, eta definizioak unibertsalak ez badira suposatu daiteke badirela, hori delako modu bakarra zientzia egiteko, baina sekula ez dugu ahaztu behar egiten dugun zientzia suposamen baten gainean eraikia dela, beraz gure zientziak sekula ez du iristen helburu maximora, baina zientzia egin egiten dugu, eta emaitzak sarritan zoragarriak ere izaten dira. Nahiz eta lilurak ez duen larregi irauten, denok dakigun moduan. Lan handia dagoelako beti.

Holakoa izan daiteke gure teorizazio gorena, gure teorizazioetan hau egiazkoa delako, besteetan egiaren haziak aurkitzen badira ere, baina ez egia azkenik, eta guk badugu teorizatu egia azkenik: cosmos honen definizio unibertsala da. Badaitheke esan ere cosmos honen ezagutza unibertsala dela edo cosmos honen arrazoi garbia dela, cosmos honen arrazoirik perfektuena ematen duelako argitasun osoz.

Eta ondorioztatu dugu gure helburu maximoa lortu ezina dela, cosmos hau aktibitatea izateak ezinezko egiten digu teorizatzen dugun cosmos honen arrazoi garbirik edukitzea. Filosofia naturaletik joanez gero ondorio hori ateratzen da ezinbestean.

Existenzialistek ez dute aintzat hartu filosofiaren historian estudiatzen den hori, hau da, definizioak esentziaren berri ematen duela, eta hortik haien nahastea eta hanka sartzea anti-esentzialista definitzen dutelarik euren burua. Eta hori da filosofiako karrera gaizki estudiatu dutelako, filosofia dialektikoen eraginez segurutikan, nik ez dut beste arrazoirik ikasten hor.

Sobrenaturalismoa gaizki ikusita dago gaur egun, baina filosofia naturalak historia osoaren berrietatik elikatzen baldin bada orduan fenomeno sobrenaturalak (ez paranormalak) topatzen ditu. Halakoak dira signoak, eta signoen estudiotik ateratzen dugu ondorioa ezen egiten zituenak bazekiela a priori, eta hori da cosmos honen arrazoi garbia edukitzea bezalakoa, cosmos honen definizio unibertsala, beraz zientzia perfektua ere, zeren zientzia perfektuak operatzen baitu definizio unibertsalekin, ez hipotesian, guk bezala gure estudioetan, eta bai egiazki definizio unibertsal direnekin, eta hortik Haren zientzia perfektua izatea. Ez cosmos honetakoa.

Guk ez dakigu, baina Harek badaki. Beraz, agian materialismora lerratzen ahal gara soilik filosofia naturaletik joanez gure ikerbidea, baina sobrenaturalismoak erakusten digu badirela esentziak, ez direla teorizazio soilak zientzia egin ahal izateko

eta bai errealtate egiazkoak. Eta hemendik ere, are gehiago, ikasten dugu nola existentzialismoa okerreko bidea den.

Azken batean filosofia naturalak, ignoratuz, gutxitan ikusten direlako, ia ia inoiz ez gure bizitzetan, ignoratuz fenomeno sobrenaturalak, filosofiako korronte oro eroaten du galbidetik, eta filosofiako korronte asko eta asko daude filosofia naturalaren bideetatik joan direnak materialismoan amaituz euren ibilbide motza, den dena igarotzea dela afirmatuz eta hori hartuz egiazko filosofia perenne bezala. Zeren igarotzearena ez baita gezurra, baina gezurra ere ez da Errebelazioaren historian gertatu diren fenomeno sobrenaturalak, oro har hartuta, eta historikoak dira eta ez mitologikoak, kontra egiten didan batek behin eta berriz errepikatzen didan moduan.

Abadeengatik nik pensatu izan dut ezen paranoidismoak jota bizi daitezkeela, batez ere ezagutza unibertsalari buruz, onmiszientziari buruz teorizatzen dutelarik, eta zerbait Adanen eta Evaren sindromea nik badut ikasten fededunetan, eta da patologia bat estudiatu eta tratatu beharrekoa. Baina, nik diot, diren beldurretan bakarrik bat da egiazki sana dena, eta hori da, duda barik, Jainkoaren beldurra.

Roman Garmendia